

# baleike

2004ko EKAINA,  
122. ZENB. DOHAINIK

## Azken hamar urteetako lekuko



IBILBIDEA: MENDAROTIK DEBARA ARNO ZEHARKATUZ

**HERRI ALDIZKARIA**

Juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
faxa: 943 86 17 42  
email: aldizkaria@baleike.com

**Argitaratzailea**

BALEIKE KULTUR ELKARTEA  
email: elkarte@baleike.com

**Administrazio batzordea**

Esther Etxeberría  
Xabier Azkue

**Koordinatzailea**

Juan Luis Romatet

**Kazetariak**

Itsaso Ibarra  
Maitane Urbietá

Gurenda Serrano

Itziar Garate

**Kolaboratzaileak**

Miriam Romatet, Dani Carballo,  
Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,  
Haize Galarraga, Xabier Aranguren,  
Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,  
Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,  
Izaga Garzia, Beñat Fernandez de  
Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon  
Mala, Eguzki Agirrezabalaga, Natur  
Taldea, Ander Hormazuri, Aitor  
Manterola.

**Argazkilaria**

Eva Franco

**Diseinua eta maketazioa**

Roberto Gutierrez

**Hizkuntz zuzenketa**

Imanol Azkue

**Publizitatea**

943 86 15 45 tel. (Esther)

**Inprimategia**

Antza

**Inprimategia**

(Lasarte-Oria)

**Tirada**

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean ..... 4

ze berri: **jadarren giroa bero-bero** ..... 6

elkarrizketa: **alfredo idigoras** ..... 8

natura **prestige** ..... 10

ibilbideak: **arno** ..... 13

olarro zopa ..... 16

**baleikereren hamargarren urteurrena** . . 17

orain hamar urte ..... 21

kirolak ..... 22

**piraguismoa**

**futbola**

gure zumai zarra ..... 26

sanpedroak 2004 ..... 29

kultura ..... 30

**ipuina**

**zinea**

**agenda**



**GU HITZAREN HARPIDEDUN...  
BESTEAK ZERGATIK EZ?**

- 743 harpidedun ditu Hitzak Zumaian
- Hitzak ezinbestekoa du zabaltea, ahalik eta etxe gehienetara iristea...
- Uztaila bitartean ahalegina egingo al dugu 1.000 harpidedunera hurreratzeko?

**Nola? Denon artean!**

Begira dezagun inguruan: familiakoak, lagunak, bizilagunak... Hitzaren harpidedun dira? Ez? Eta zergatik?

- Etxean jasotzen da
- Ez dago ordaindu beharrik
- Eskualdeko osoko informazioa
- Euskaraz



Zer egin? Bakoitzak harpidedun bat edo batzuk lor ditzala eta gero nahikoa da 943 304346 telefonora deitu edota harpidetza orriak betetzea Foto Mertxen edo Aizpurua liburu-dendan.  
**EA UZTAILEAN 800ERA IRISTEN GAREN!!**

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaia Udalak**



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**kutxa**  
gizarte ekintza



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO**  
FORU ALDUNDIA

# Ortizeneko Letizia ezkondu omen zakun



Uhin Loliola

–Ortizeneko Letizia ezkondu omen zakun.  
–Ah bai? Ez al hunan, ba, len ezkondu?  
–Jesus neska! Aspaldi dibortziatu hunan hua!  
–Badakin... gazte hauek! ...Ta zeñekin, ba?  
–Etzekiñat... Etxe onekua izan ber din iñundikane...  
baña hori bai por amor.  
etab...

Ba, bai. Ta bay ala sy aukeran jartzen diguna ere bertan izan omen zen. Ez dakigu Espainiako ejerzitoarentzat euskal labeldun armak saltzen ala hemen maniobrak egin ditzaten garraibideen "plana" azaltzen.

–Pues eso, geo Artzakenian bazkaxa.  
–Letizia hori zer den, periodista? Baleikekuak bezela? Nei eztakit zeñek emateiten pena geyo: Bustamantei bezela autografua eskatzen zunak o Juan Karlos azaltzean txanponagatik bakarrik kejatzen zanak. Ziaro txoratu gea o ze!!

Atención pregunta: Zertako da ejerzitua?

- a** Petroliua lapurtzeko
- be** Akatzeko
- ze** Bardeetan zuluak iteko
- de** NS/NC (No Sirve No Congratula)

–Oyetakon bat az al hunan euskaldun batekin ezkondu esto... nola hunan apellidua... kantante o bertsolai majo hori bezela...

Hurrena perejil konkistatzen duenian o beste froilan bat jayotzeanian:

–Larga vida al rey!!  
–Eso, eso, larga agonia!

Oharra: Umore punttua 1.000 karakteretara iritsi beharri zor zaio. Gaia berez serioa eta tristea da. Batenbat minduta sentitu bada, bazen garaia.

## Karga-deskarga

## estalapetik

Dauneko batzuk hiru bat aste; estalapan gitxibian (non bestela egualdi harekin) eta belarririkoz jositako gazte bat bildu huan gurena, lotsatu xamar. (Damianek esaten denez goiko Erramunen iloba omen huan, baina nik neuk gaur egungo gaztiak ez dizkiat ezautzen; bilobak justu justu). Gaztiak, edukazioz arratsaldeonak eman eta zapla bota zian bota biharreku: Baleiken edade-tuen ahotsa faltan botatzen omen zian herriyak eta ea gu prest omen geben zer edo zer "idazteko".



Joxe Luis

Zoro etxetik ihesitakoei bezelaxe beiratu genitxion eta ezer esan baino lehen beak hartu zian berriz aurria: «Idazten ez bazeate ATREBITZEN, zuek kontau eta neuk idatziko det». «Atrebitu ez gu?», hala esan genitxion Baleikeko gaztiari, «Atrebituko ez gaituk, ba, motel, ze usten dek guk ez geniala eskribitzen ikasi o ze?». Esan, hala esan genian, eta orain bete egin behar.

"Atrebitu" ta gero ez diau ia beste kontuik izan estalapan. Kronista aukeratzeakuan aspaldiko kontuak harrotu dizkiau: zeinek zekan letra onena, zeinek jasotze zun beti diploma... Danok berriz e eskolan bezela. Azkenian, zotz in diau, beti bezela. Ta neuri tokatu bihar!

"Behin kronista izendautu kronika itia erreza dek, Joxe Luis, guk kontau ta hik eskribiu" hala jarduten zie lagunek, danak gustoa tokatu ez zaielako. Eta ez die arrazoi faltik beti zioz eta ze kontatua eta ze jarduna.

Eta halaxe hasiko nauk, lagun artian gehien komentatzen danakin.

Danok zikiu Erribera kalia ezin dala aparkau, baino bertako komertzio eta gainerakuek generua ingurau ahal izateko "Karga-deskarga" ametitze die goizez. Hala ere Zumaiarroko goizero, goizero Erribera kalia kotxez itozten diau; bi azerak "karga-deskargan" daben kotxez beteta eta erditik autopista. Erriberan oinez atzea ta aurea ibiltzia kosta eiten dek gea.

Izan ere, batzuntzat eozer dek "Karga-deskarga":

Bankutik pasa biharra dakaula zeozerta? Lasai, kotxea "karga-deskarga" utzi banku aurrian ta barroa.

Periodikua ta ogia hartu bihar diala? Hori "karga" dek bate dudik gabe.

Baxoerdia hartu nahi deula? Aparkaleku tabernan aurrian, hori ere "Karga" dek eta.

Oestian bezela Erriberan e dana libre!

Ta txaperuak? Nun dia txaperuak? Beste batzutan earki astintzen dizkie abixuak eta multak baina Erriberan pasian ere etxuk ikusten.

Baten batek pentsatuko dik geure buruai baino etzioula beitzen, baina gu baino okerro ibiltzen txuk ume kotxiakin pasian gora ta behera dabil-tzan ama eta neskameak, haiek bai eskertuko duela "Karga-deskarga"-kin bukatzia.

Eta "autoridadiak" jakin beza lotsagarria dala herriko kale nobliena kotxien aparkaleku bihurtzia, eta okerro oaindik beste aldeia beitzia ezer pasako ez balitz bezela.

Hurrenguan kontu gehio.

# Kezkati!

Eztek posile Unai! Berrize bai! OPkuan kanta bat han, beste bat hemen, beste bat hurrunguan, geo igual Monika bai nola ek? A bai Naranjo, hemen berriz, Buleria jarri die! Laiste buruko ernia-re izango diu taberna hauetan bueltaka gabiltzan danok ezpaare geyenak!

Hau dek martxa! Hobeto esanda, hau eztek martxa Unai. Hau eztek martxa!

Normala dek bakarriketa hauetan murgiltzia, ze pentsaua emateik eta!

Zumaiako tabernetan geo ta euskal musika gutxiyo aitzek dudipe, baziok pa makinat talde ta onak asko; hemenguak ttuk gainea, ta gu beste hoiyek aitzen gitxabiltzak. Zenbat taberna libratzeittuk ohi-ttura megaguayyy hortatik hiru, lau, etzakit, etzakit!

Nik eztit esaten gure musika bakarrik jarri ber duenik hoi gauza urriya dek etzieu beste musikai ateik itxiko, nahiz hik askori atia itxi ez, irikire ingo ez iyokeen arren! Ta gainea bazparere kandaua jarri, konturatzeako sukaldeño sartzan bai diittuk, ta ottu ite haix, hoi dek okerrena ta hoixe dek pasatzen ai dana.

Festak euskal giruan ittia zaila bihurtzen ai dek. Gure musika geuk aittu ber ezpau, zeinek aittu ber dik, pa? Eo naikua al dek Euskal Jai eunian lau ordutan euskal musika jartzia urte osoako kupua betetzeko! Trikitiya bakarrik eztek euskal musika, baño trikitiya-re badek euskal musika! Zeatik aitzek hain gutxi gure tabernetan?



Unai Gijarro Iruretagoiena

Askotan pentsatzeit begiak itxita taberna batea eramango baniñueke ez nukela erraz asmauko Zaragozako eo emengo tabernan batian eongo nitxaken, ta nik etzakat ezer hango tabernan kontra baño hemenguak hementzauek, Euskal Herrian! Horrekin ezтик esanahi eukaldunak beti desberdinak izan ber diunikan, baño gure otturak, girua ta musika kultura dek azken fiñian, eo ze allau gattuk ezerk inporta ez izatea! Ibaira salto in da korrontiak eamaten gattun lekura jun ber aldiu? Beotu itte nauk, beotu!

Kamarero o kamarera honek ez al dik etorri ber?

- Hi, hamar zurito!

Bai, bai, Unai aspalditik dabilkik buruan honi buruz Baleiken zeezo idazteko idea ta idatzi berra dakak! Hire bakarriketa paperea pasatzeko ordua badek!

Gainea, usteit kritika positibua dala, ta on itteko idatziko dekena, iñoi minik inber ez liyokena, gehiore izango diittuk hontaz konturata dabenak, ezta?

- Hi zea! Eztezue ba eaten nik ematia naiko? Etorri zurituan billa!



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak  
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



# Jadarreko kalea irekitzea eskatzen dute bertako 68 auzotarrek

## Hiru auzotarren eskakizunari kasu eginez hartu du ixteko erabakia Udalak

MAITANE URBIETA

Bero-bero dago giroa Jadarre auzoan. Izan ere, orain dela 3-4 aste, Maria Eugenia Arrizabalaga alkatearen aginduz bertako kale bat itxi da, bi zutoinen bidez, auzotarrei inongo abisurik eman gabe.

Kalea itxi denetik bertako auzotarrak itxieraren arrazoen bila dabilta. Gutunak bidali dituzte komunikabide-etara eta Interneten ere badabil kale hau berriro irekitzea eskatzen duen mezurik. Auzotarrek kontu hau ahalik eta gehien zabaldu nahi dute, "zumaiar guztiek ikus dezaten nola egiten duen lan gure alkateak".

Hiru lagunek egin dute kalea ixteko eskaera. Urtebetez egon omen dira Udaletxera joaten kexatzera, hau da, kalea ixteko eskatzera. Eta azkenean lortu egin dute.

Inongo abisurik igorri gabe itxi dute zazpi etxebizitzetarako dagoen sarbide bakarra. Horren aurrean, auzotarrek itxieraren aurkako sinadura bilketa batean 68 sinadura lortu dituzte, baina, itxura denez, ez dira nahikoak izan 3 horiei gailentzeko.

Sinadura horiek Udaletxera bidali dituzte gutun batekin, Hirigintza

batzordeko arduradunari zuzendua. Bertan, auzotarrak itxieraren aurka eta Udalak gauzak egiteko izan duen moduaren aurka azaltzen dira. Hauek dira ezadostasun eta haserre horren arrazoiak, aurka dauden auzo-koen hitzetan:

*1. Maria Eugenia Arrizabalaga alkatea bi irizpidetan oinarritu da kalea ixteko orduan. Alde batetik, autoek sortzen duten kutsadura aipatzen du; bestetik, berriz, irisgarritasun arazoak.*

Auzotarrak ez daude ados bi irizpide horiekin. Izan ere, kale hori aparkatzeko baino ez dute erabiltzen; ondorioz, ez dute uste hor sortzen den ke kutsadura nahikoa arrazoi denik kalea ixteko. Horretaz gain, pentsatzen dute aipatutako irisgarritasun arazoak ez direla hartu den neurria hartzeko adinakoak.

*2. Kale hau da pasabide bakarra 9., 10., 11., 12., 13., 14. eta 15. ateetarako.*

Errepide hau duela 52 urte eraiki zen ate horietara iritsi ahal izateko. Ez da inongo gutuzia, betiko pasabidea besterik ez da. Egunen batean larrialdiren

bat gertatuz gero zer gertatuko litzatekeen beldur dira Jadarreko auzotarrak.

*3. Aparkatzeko kontuarekin lehen ere arazo gutxi daudenez, kale hau itxita arazo hori areagotu egin da.*

Auzotarrek aparkatzeko Ayra Durex ondoko aparkalekura joan behar dute la diote. Galdera hau etortzen zaie burura: "Hemendik aurrera, urtero Udalari ordaintzen diogun zerga Ayra Durex enpresari ordainduko al diogu?".

*4. Neurri hau 3 auzotarrek aurkeztutako kexa dela-eta hartu da.*

Gainontzeko auzokideei ez omen zaie inolako iritzirik eskatu, aipatzen dute Jadarreko bizilagunek. Are gehiago, auzotarrekin hitz eginez gero, kalea ixtea lortuko ez zuela jakinda, alkateak inorekin kontsultatu gabe hartu duela erabakia diote auzokideek.

*5. Auzotarrei ez zaie inolako abisurik igorri.*

Horrelako erabaki bat hartzen denean auzotarrak jakinaren gainean egon behar dutela diote Jadarreko bizilagunek, horretarako eskubide osoa dutela.



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA

6. Erabakia hartu aurretik ez da kalearen egoeraren eta errealitateari buruzko azterketa sakon eta ikerketarik izan.

Kalea itxi ondoren, zenbait auzotar Udaletxera joan dira azalpen eske. Harriturik geratu dira, ordea, alkateak kalearen errealitatea ezagutzen ez duela onartu duenean. Erabakia hartzeko modua axolagabe, arduragabe eta lotsagarritzat jo dute auzotarrek. "Ez al du uste alkateak horrelako erabaki bat hartu aurretik dagoena aztertu beharra dagoela? Horrela hartzen al dira erabakiak herri honetan?", galdeztzen dute auzokideek.

7. Maria Eugenia Arrizabalaga: "Kexa aurkeztu dutenek, azken urtean zehar, Udalera hainbat alditan jo dute beraien ezadostasuna adieraztera, eta, azkenean, erabaki hau hartu da".

Erabakiak hartzeko modu hori ikusita, zerbait lortu nahi duenak urte osoan zehar Udaletxera joan beharko duela kexatzera, diote haserre auzokideek. "Ondorioz, itxieraren aurka dauden 68 pertsona horiek Udaletxera joaten hasten bagara, berriro irekiko litzateke kalea, ezta?", galdeztzen dute bizilagunek.

8. Behin kalea itxi ondoren, 9., 10. eta 11. portaleko administratzaileei bakarrik eman zaie posteen giltza, larrialdiren bat edo izanez gero era-



Erantzunik eduki ezean, denen artean abokatu bat hartzea pentsatzen ari dira

bili eta pasabidea ireki ahal izateko. Horri lotuta atari bakoitzeko giltza bat gutxienez eskatzen dute auzotarrek.

Horiek dira Jadarreko auzotarrek itxieraren aurka azaldu dituzten arrazoiak. Horretaz gain, bertan bizi direnek salatu dute auzoa albo batera utzirik dagoela. Kasu honetan, nahiko esanguratsutzat jotzen dute herriko alkateak berak auzoa ez ezagutzea.

Hala eta guztiz ere, ez dute oraingoz inolako erantzunik jaso Udaletxetik. Aurrera begira, eta erantzunik eduki ezean, denen artean abokatu bat hartzea pentsatzen ari dira. Horrela jakingo dute Udalak egin duena benetan egin daitekeen.

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maite**  
ileapaindegia

**malaur**

ertx  
informatika

tresna digi-  
internet  
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95

**DALAC**  
COMPLETOS

## alfredo Idigoras ALCER-Gipuzkoako kidea

# “Talde hau gaixoak eta familiak batzeko modu bat da”

ITZIAR GARATE

Ekainaren lehenengo astea organo emaileen astea da eta horregatik Alfredo Idigorasekin hitz egin dugu. ALCER taldeak ireki berri duen egoitza berriaren aitzakiarekin gai-xotasun gogor honetara hurbildu nahi izan dugu.

### Zer da ALCER?

Gipuzkoa mailan giltzurrunetatik gaixo dauden guztiei laguntza eman eta beharrak asetu ahal izateko helburua duen taldea da. 1976an sortua zen eta ordutik elkartu eta laguntza jaso eta ematen saiatu gara. Talde hau gaixoak batzeko modu bat da, baita euren familiak ere.

### Nondik dator lokalaren proiektua?

Hasiera batean laguntzaile bakarra genuen, dialisian zeuden gaixo guztiei laguntza ematen ziena. Baina gutxi zela ikusirik, lokal bat hartzea pentsatu genuen. Amara Berrin dago lokal hori eta bertan bi neska jarri genituen eta horiei boluntario bat eta idazkari bat batu zaizkie. Baina askotan Donostiaraino joan behar horrek atzera egiten zuela eta, hurbilago eraikin bat izatea pentsatu genuen. Zarauzko Udalak utzi digu eta bertan Urola-Kosta bailarako herrietako gaixo eta senideak elkartu nahi dugu.

### Zein helburu ditu Zarautzen ireki berria duzun egoitza honek? Edonor hurbil daiteke bertara?

Bai, bai. Gaixoez gain familiakoak ere ongi etorriak dira. Geure artean bildu eta hizketaldiak egiteko helburuarekin

sortu dugu. Egoera horren aurrean orientazioa eman eta nondik ibiltzeko aholkuak ematen saiatuko gara. Telefono bat dago (943830943), baita ordutegi bat ere, asteazkenean, norbaitek bere arazoak azaldu nahi balitu bertara hurbiltzeko. Guk gure mailan lagunduko genioke. Ez dago zertan bazkide izan; hara joan, kasua azaldu eta guk, ahal dugunean, behintzat, lagundu egingo diogu.



*“Ezin duzu burua jaten egon, gaixo jarraitzen duzu eta gainera bizitza konplikatzen duzu”*

### Egoera gogor horretan laguntza ongi etorria izango da.

Bai, momentuan garrantzitsua da laguntza eta informazioa izatea. Uler-tzen zaituen norbait.

### Egora berri horrek bizitza aldatzen dizu. Nola eraman daiteke hori etxe batean?

Bizitza aldatzen du. Baina ez norberari bakarrik, baita etxekoei ere. Beste maila batean, beste modu batean, baina ingurukoek ere gaizki pasatzen dute. Nire kasuan emazteak bizi izan zuen hori hurbilen, alaba oraindik txikia zen guztiaz konturatzeko. Gaixoa norbera den arren, berak ere gaixotasuna pasatu zuen.

### Nola zaudete orain?

Bueno, orain bi urte dialisian hasi nintzen berriz. Pneu-monia batekin hasi eta analisisiek azaldu zuten berriz ere operatu egin beharko nindutela. Oraindik zain nago.

### Zer moduz zain egote hori?

Gogorra da, baina ezin duzuna buruan jaten egotea da, gaixo jarraitzen duzu eta gainera bizitza konplikatzen



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGRRE, z/g  
TEL: 943 865369

duzu. Etortzen denean ondo, eta bitartean zain egotea besterik ez. Bestela bai zu eta baita etxeok ere nahastu-ko dituzu. Ez dago beste ezer egiterik.

### **Horrelako elkarte baten aurrean Zumaiako herriak laguntzarik luzatu al dizue?**

Egia esan, oraindik ez dugu eskatu. Lokala ireki eta guztiarekin presaka ibili gara, baina badugu asmoa laguntzaren bat eskatzeko. Lokalaren gastuak Zarauzko Udalak hartuko ditu, baina bertako materiala guztiok erabiliko dugu eta horretarako laguntza luzatu nahiko genuke. Laguntzaren bat jasotzeko, hala ere, komeni ahalik eta emaille gehien lortzea. Horrela Udalak ikusiko du gure atzean jendea bada-goela eta laguntza behar dugula.

### **Eta jendearengana hurbiltzeko ekintzarik prestatu al duzue herrian?**

Bai, ekainaren 6an mahai bat jarri genuen Erribera kalean, emailleak lortu eta nahi zuen guztiari gure berri emateko. Ongi joan zen, baina oraindik gehiago behar da. Mahai hauek Gipuzkoa osoan jarri ziren helburu berberarekin: emaille gehiago lortu, informazioa zabaldu eta jendearengana hurbiltzea. Zumaian datorren urtean ekintza gehiago egitea pentsatu dugu, baina oraindik ez ditugu zehaztu. Eskoletara hurbildu, ikus-entzunezko materiala zabaldu, emaille txartelak leku gehiagotan banatu...

### **Orain artean jendearen erantzuna nolakoa izan da?**

Ona. Batez ere hasieran. Orain gauzak gelditu egin dira, baina bizkortzeko esperantza badugu. Hasieran emaille asko zirela pentsatu genuen, baina zifrak hotzean begiratu kopuru txikia zela ikusi genuen. Zumaian % 12 bateko

kopuruaz hitz egin dezakegu eta asko dirudi, baina zenbakiak begiratu horren atzean ikusten ditugu oraindik emaille egin ez direnak. Beti entzuten dugu Euskal Herrian emaille kopurua inon baino altuagoa dela, baina errealitatean oraindik kopurua txikia da, zenbakiak ez dira nahikoak arazo honentzat.

### **Zer gertatzen da benetan txartel hori bete ondoren?**

Diagnosiak beti medikuak egiten ditu. Balorazio horren araberak erabakitzen da emaille baten aurrean dauden. Orduan medikua familiarekin jartzen da harremanetan eta plan teamendua azaltzen zaio. Azken hitza beti familiak izango du, beti errespetatzen da euren hitza. Hamarretik bi edo hiruk azken momentuan ezetz esaten dute eta hori errespetatu egiten da. Baiezkoa bada erantzuna, listak begiratzen hasten dira, espezialistak martxan jartzen dira...

### **Zer esango zenioke oraindik emaille ez den bati?**

Egiten duguna arazoa urrunetik ikusi da, "bai, ados nago, ideia ona da, baina...". Beti pentsatu behar dugu, ordea, arazo hori edonori gerta dakiokoela eta laguntza ez dela inoiz gaizki etortzen. Urrunetik ikusten dugun bitartean gauza erraz pasatzen da. Ezin duguna da jendea konbentzitu emaille izateko. Hori norberak hartu behar duen erabakia da. Guk bada-kigu hemen gaudela, behar duguna da jendea gehiago konturatzea. Ez gara konturatzen batak besteari bizitza eman diezaioketela.

### **Azken erantzuna, beraz, borondatea da?**

Bai, azkenean hori da jendea bultzatuko duena. Guk ezin ditugu behartu, baina hor egongo gara laguntza emateko gogoz.



**ad** AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

**Kresala**  
Taberna

Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
AROEZTEGIA

Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



# Prestige itsasontziaren hondamendiaren ondorioak urte eta erdi ondoren

*Urte eta erdi pasatxo da Prestige itsasontzia hondoratu eta eragin zuen hondamendi guztia gertatu zenetik. Orain dela urtebete argitaratu genuen itsasoak galipot tona asko ekarri zituela; oraingo honetan, berriz, informazioa bildu nahi izan dugu gertatukoari errepasso txiki bat egiteko eta gaur egun zer egoeratan gauden jakiteko. Horretarako, adituen informazioa biltzen saiatu gara, hondamendiaren nondik norakoak, ondorioak eta gaur egun kostaldearen egoera azaltzeko.*



GURENDA SERRANO

**A**zaroaren 13an Prestige itsasontziak istripua izan zuen. 15:15ean, istripuak zuen garrantziaz jabeturik, laguntza eskatu zuten; Finisterretik 52 kilometrorra zeuden eta 80.000 tona fuel garraiatzen zituzten; baina agintariek, lagundu beharrean, hondamendirantz garraiatu zituzten. Azaroaren 16an fuela Galiziako kostaldera iritsi zen, hain zuzen "Costa da Morte"-ra. (5.000 tona fuel). Azaroaren 19an Prestige itsasontzia erdibitu egin zen eta fuel gehiena isuri egin zuen.

Azaroaren 24an, haizearen ondorioz, fuela Euskal Herrira iristeko aukerak handiagoak ziren; izan ere, Bizkaiko Golkotik gertu 10.000 fuel tona zeuden, norabide jakinik gabe.

Urtarrilaren 10ean Euskal Herriko hondartza gehienetara iritsi zen galipota, eta zoritxarrez Zumaiara ere bai. Hainbat hegazti hilda agertu ziren Itzurunen eta Algorrin.

Data horretatik aurrera, gure kostaldean nahi baino gehiagotan ikusi behar izan dugu galipota.

**Administrazioaren eta Gobernuaren jarrera**

Adituak ados daude: Administrazioak eta Gobernuak

hasieratik axolagabekeriaz jokatu zuten; komunikabideetan eman zen informazio okerraz benetako errealitatea ezkutatu nahi izan zuten.


Aitor Leizak (Zumaiaiko Natur taldeko kideak) zera esan digu: "Agintariak oso motel mugitzen ziren, eta gehienbat hondartzak garbitzen ari zirela ikusirik, gure aldetik miaketa egitea erabaki genuen, Algorritik Sakonetaraino; hurrengo egunetan Sakoneta garbitzen saiatu ginen. Beste irteera bat ere egin genuen, hain zuzen, Eloorriaga azpiko arraldera; 60 lagun bildu ginen, eta ahal izan genuen gehiena garbitzen saiatu ginen. Salatu nahi dugu agintarien aldetik ez genuela laguntzarik; izan ere, behar genuen material guztia gure poltsikotik erosi behar izan genuen".

Leizaren ustez: "Ados geunden hondamendia gertatu zenean herritarrei hondartzarako sarrera debekatzearekin, baina kontraesan handia ikusten genuen udaran hondartzak garbitzen aritzen ziren bitartean jendea bertan egotea, kontraesan handia benetan, kontuan edukita guk ezin izan genuela lagundu, materialak ez genituelako eta guretzat arriskutsuegia izango zelako. Eta zer esanik ez Itzurun hondartzari bandera urdina eman ziotenean, komunikabideetan Itzurun hondartza hainbat aldiz agertu zitzaigunean Euskal Herriko kostaldeko leku kaltetuenetako bat bezala; horregatik, bandera beltza jartzea erabaki genuen".

### Ondorioak

Hondartzak, itsaslabarrak, haitzak, hegaztiak, arrantza, etab. kaltetuta gertatu dira. Iaz arrantzaleek arraina harapatu beharrean galipota jasotzen aritu ziren, eta aurtengo denboraldia, lehengo urtekoarekin konparatuta, ona izan da. Baina fuelaren eragina nolakoa izan den jakiteko urte batzuk pasatzen utzi beharko ditugu; izan ere, isuritako fuela jatorri industrialekoa da eta sufre kopuru handia du. Adituek esaten dutenez, 10 urte igaro beharko dira itsas ekosistema berreskuratu ahal izateko.

Adolfo Uriartek (AZTIko zuzendariak) Oxforden emandako hitzaldian nahiko ezkorra izan zen arrantzari zegokionez. 1989 urtean Exxon Valdez ontziak Alaskan izan zuten istripua jarri zuen adibide bezala, Prestigen antzeko honda-



Fuelaz kaltetutako hegazti ugari heldu dira kostara

mendia izan zela esan zuen, 1990 urtea arrantzarako oso ona izan zela aipatu zuen, baina hurrengo urteetan arrantzak beherakada izugarria izan zuela azpimarratu zuen, eta egun, oraindik, Alaska inguruan arrantza ez da normalizatu.

Gizakiarengan izango duen eragina ere urte batzuetara ikusi beharko dugu; izan ere, fuelak duen sufre kopuru handiarengatik minbizia sor dezake.

Hegaztiengan ere eragina izan zuen, galipota hegoetan itsatsirik geratzen zitzairen eta horrek hipotermia eragiten zien; beste batzuk, berriz, fuela irentsiz kutsatuta hil ziren. Egun oraindik ere azaltzen dira hegazti hilak, baina gutxiago. Adituek diote hondamendi honen ondorioz txorien ibilbide migratzaileak aldatu egiten direla eta azpimarratzen dute urte batzuen buruan ugalketan eragina izan dezakeela.

  
gofi  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School  
**Harvest**

**Ingelesko klaseak adin guztietan**

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

## Galipot kopuruak (2003. urte bukaeran jasotako datuak)

Prestigek zuen fuel kopurua	80.000 tona(?)
Prestigek isuritako fuela	63.000 tona(?)
Bildutako fuela (hondarrarekin, hondakinekin edo urarekin nahastutakoa ere bai)	130.000 tona
Jaso gabeko fuela	6.000-10.000 tona(?)
Prestigen geratzen den fuel kopurua	14.000 tona(?)

	Itsasoan jasotako fuela (t)	Lehorrean jasotako fuela (t)
Galizia	7.677	47.162
Asturias	257	4.737
Kantabria	4.003	10.176
Euskal Autonomia Erkidegoa	19.395	6.817
Frantzia	1.225	10.500
Europako itsasontziak	19.363	-
Guztira	51.920	75.393



Beraz, etorkizunean ikusi beharko dugu Prestigeren fuelak izango duen eragina.

### Euskal Herriko datuak

- Euskal erakundeek 55 milioi euro gastatu dituzte hondamendi honi aurre egiteko.
- Arazoaren kudeaketan 3.000 pertsona inguruk hartu dute parte.
- 215 euskal itsasontzi, mila arrantzale baino gehiagorekin, hartu dute parte garbiketa lanetan.
- Euskal ontzidiak 21.000 tona fuel jaso ditu.
- Lehorrean garbiketa taldeek, hondartzetan nagusiki, 3.000 tona fuel jaso dituzte.
- Euskal Herriak zazpi aldiz fuel gehiago jaso du itsasoan lurrean baino; horrelako hondamendietan, orain arte, inoiz ez da hainbesteko proportzioan jaso.

### Egungo egoera

Aitor Leizak esan digunez, aurten ez dugu ia fuelaren berri izango, nahiz eta itsasoan oraindik 10000 fuel tona baino gehiago egon daitezkeen. Hondartzetan ikusi ahal izango duguna haitzetan garbitu gabe dagoen gali-pota izango da; izan ere, beroarekin urtu egingo da eta baliteke hondartzetara iristea; baina ez dugu lehengo urteko egoera edukiko; hori da, behintzat, pentsatu nahi duguna.

Adolfo Uriartek aipatu zuen gaur egun, oraindik, Euskal Herriko kostaldetan hilero 1,5 tona hondakin, fuelaz zikindurik, jasotzen direla.

Hondamendi honek izango dituen ondorioak urte batzuetara ikusi beharko ditugu. Bost urtetik behin honelako istripuak gertatzeko arriskua omen dago; beraz, agintariei behar diren neurriak hartzeko eskatzen zaie.

**ilarfi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua  
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

**EGOKI**

*Erloju eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan



Arnoko ikuspegia, Zumaia tik, itsaso gainean.

ibilibideak

## ARNO S.O.S.

XABIER ARANGUREN

Pentsa daiteke Arno Gipuzkoako mendebaldean kokatuta dagoen mendikate txiki bat besterik ez dela, baina berezko nortasuna duen eremua da. Nabarmena mendi hauek artadi kantauriarra, Gipuzkoako mota honetako baso garrantzitsuenak baita. Artadiak mendikatea estaltzen du ia bere osotasunean; garai batean zuhaitzi hauek bidelapurak ezkutatzen ziren jendeari bere sosak lapurtzeko; gaur egun, berriz, beste "lapur" batzuk (basogintza ilegala, adibidez) osten ari dira Arnoko aberastasun naturalak eta antzinako eraikinak.

Irteera Mendaroko Azpilgoeta auzoan dago. Elizaren iturrian beteko ditugu kantiplorak, ez dugu iturririk aurkituko eta. Bertatik, aldapan behera segi ezkerretara doan Arnorako bidearekin topo egin arte. Horri segituz autobide azpitik pasa ondoren eskuinera jo eta aurrerago aurkituko dugun argi indarreko transformadorearen ondoan

eskuinera joango gara pista batetik. Harrobi zahar bat pasa eta gero, pista horrek hormigoizko eraikin bateraino eramango gaitu. Bertatik gorantz segituko dugu bailaratik, pistatik, eta bihurgune bat pasa ondoren, bigarrengotan, adi ibili behar dugu. 50 metro egin gora eta eskuinean harriz egindako seinalea topatuko dugu. Hortik pinu pista utzi eta eskuinera joz galtzada zaharrean sartuko gara. Galtzadak artadian barneratuko gaitu. Langa bat pasa eta aurrerago (kontuz ibili bidea galdu gabe) zoritxarreko ustekabe bat aurkitu dugu: sasi-pista batek gure bidea ito eta suntsitu egiten du. Pista berri horrek galtzada desegin du goiko leporaino; ez dakigu zergatik ireki duten pista hori, ezta arteek eta harbideek zergatik jaso duten hainbesteko eraso ere.

Lepoan triskantzak jarraitzen du, baina guk ere jarraitu behar dugu eta hondamen honen punturik gorenean basoan sartuko gara, bidezidor arrasto batzuetatik, baina



Pagadi bat ebakita Arno barnean.

basoaren leku garbienetatik. Mendi hegala segitzen saiatuko gara mendebalderantz eta zuhaitzekin borroka pixka bat eginez Kanpantzarrera, Arnoko gailur nagusira (633 metro) aterako gara.

Gailurra leku aparta eta bakartia da benetan, eta ikuspegi-az gozatu eta gero, berriz biderik gabe jarraituko dugu iparralderantz zuzen, gailurretik 350 metrora bidezidor bat topatu arte. Presoleta lepo inguruan bidezidorra segi eskuinera, berriz basotik, eta txoko polit batzuk pasa eta gero, beste pista nagusi batera aterako gara. Pista horrek beharera eramango gaitu, eta ondoren Apaingo lepoan ezkerretara doa. Behin horra iritsita, bi aukera ditugu: bata, pistatik segi eta Kostola baserritik Mutrikura eramango gaituen errepidetik joatea; bestea, Apainetik norabidea mantendu eta gurdibidetik segituz Apaingo Amabirjinaren ondotik pasa eta Kalbaixoko lepora heltzea, eta, bertatik errepidea hartuta, Debara jaistea,

Olabarrieta baserrietatik Lasaura eta handik, Deba ibaiaren ondotik, Deba herrira.

**Artadi kantauriarra:** oraindik irauten du trinko baso honek. Berez artadiak mediterranearen ekosistemakoak dira, baina adituek diotenez, garai batean klima epelagoa zela eta atlantiar eremuan ere garatu ziren eta gaur egun altxor bereziak dira. Erakundeek proiektu bat daukate baso hau babesteko, baina beldur gara ez ote den berandu helduko.

**Bide sarea:** Arnoko antzinako bide sarea oso murriztuta gelditu da gure gizarte "aurreratu" honengatik. Hala ere, oraindik kilometro batzuk gelditzen dira gure gozamenerako. Lehen ikazkin, baserritar eta merkatariek erabiliak, gaur egun oso ahaztuta daude. Bide hauek ez badira erabiltzen galdu egingo dira basoaren itzalean. Hala eta guztiz ere, Arnoren zehar zeharkaldi eta ibilbide konbinaketa zabala daukagu "galtzeko" grina edukiz gero.



Km: 11.  
 Desnibela: 650 m.  
 Iraupena: 3-4 ordu.

Erreferentziak:  
 - Mendaro (Azpilgoeta): 0 km.  
 - Lehenengo lepoa: 2,3 km.  
 - Arno (gailurra): 3,5 km.  
 - Aparain lepoa: 6 km.  
 - Deba: 11 km.

Oharra: trenarekin konbinazio onak daude, Zumaia eta Mendaro artean, Deba eta Zumaia artean.

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN  
 ERREGENERAZIO ETA SALMENTA  
 Tel/Fax: 943 143 592 - Juan Belmonte, 2.bajo - 20750 ZUMAJA



**GOIKO BODEGOIA**  
 "Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAJA • Tel. 943 861191



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
 Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

icardo J. Azcue Yeregui  
 Abokatu • Aseguruak  
 Finko Administrazioilea

tsomin aguirre 4. behea  
 20.750 zumaia (giuzkoa)  
 E-mail: jgazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862051  
 Fax. 943 862748

**Rosi**  
 garbiketak

\* Etxeak eta dendak  
 \* Enpresa eta auzo lanak  
 \* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
 Tel. 943 861670

# Sagarra dietetikan eta terapeutika naturalean

Dietetika

**S**AGARRA SAGARRONDOAREN fruitua da, Rosacea familikoa, Pirus Malus izen zientifikoa. Dударik gabe, fruituen artean erregina da, bere ahalmen sendatzaile eta sukaldeko erabilerengatik. Sagarrondoaren azal eta loreek ere aplikazio sendagarria dute.

Jatorriz Europakoa eta Asiakoa da, baina mundu guztian hedatu da. Sagarrondoak, ordea, hotza behar du eta horregatik herrialde tropikaletan ez da hazten. Euskal Herriko klima oso ondo doakio: tenperatura gozoak, udara ez oso beroak eta negu leunak, euritsuak.



IzagaGarcia  
Dietista eta  
iridologoa

- Azido organikoak: azido malikoa, zitrikoa, sukzinikoa, laktikoa, salizilikoa, fosforikoa, sulfurikoa
- Taninoak: beherakoa mozteko eta antiinflamatorioak.
- Entzimak.
- Flabonoideak: kolesterolaren aurka. Garrantzitsuena kerzitina da, antioxidatzailea (sagarra eta tipula dira kerzitina gehien duten elikagaiak).
- Boroa: kalcio eta magnesioaren xurgapena hobetzen du.
- Hormonak.
- Karotenoak.

## Sagarren konposaketa

- 100 gramoko, 59 kilokaloria ematen ditu; %85-95 ura da; azukretatik, nagusiak fruktosa eta gutxiago glukosa dira; ia ez du gantzik eta proteina gutxi. Hainbat bitamina eta mineral ditu, batez ere C bitamina (asko galtzen du mozterakoan) eta fosforo eta magnesioa.

- Sagarra elikagai gomendagarria egiten dutena bere osagai ez-elikagarriak dira:

- Pektina: hesteetan xurgatzen ez den azukre hau oso garrantzitsua da dietetika aldetik, zuntzak osatzen baititu. Kolesterola jaisten laguntzen du.

## Sagarren ahalmenak

Eragin antibirala dauka; desinfektatzailea; desinflamatzailea; odola garbitzen du; azido fosforikoa duenez, bihotzaren taupadak eta nerbio sistema erregulatzen ditu; hesteetako hondakinak biguntzen ditu; tonifikatzailea; lasaigarria da; libragarria (laxantea); sikagarria da; pixarazlea da: alde batetik, ur kopuru handia du; bestetik, gernu aparatua sendatzeko gaitasuna du; erreumaren aurkakoa; kalentura jaisteko: batez ere zukuari edo azalekin egingako infusioan; mukiak botatzeko: zukuari edo xarabe moduan hartua.

*Tapaia*  
Taberna

**STIAOM**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

h a m a r  
g a r r e n  
u r t e u r  
r e n a  
o s o a  
t z e n



baleiken hamargarren urteurrena ospatu nahi dugunez film laburren saioa eta kontzertua antolatu ditugu. uztailen webgunea jarriko dugu martxan. haei buruzko informazioa duzue barruan.



# ki mu ak

aita mari zinean

ekainak 17, osteguna, gaueko 10:15ean




## ◀ Basurdea (2002)

**Zuzendaria:** Ane Muñoz Mitxelena  
**Gidoia:** Xavi Sala, Ane Muñoz Mitxelena  
**Argazkia:** Ignacio Giménez-Rico  
**Musika:** Fermin Muguruza  
**Aktoreak:** Anartz Zuazua, Xinboren Alkain, Ernesto Barrutia  
**Iraupena:** 14 min.

### Sinopsia

Mikel eta Joxi arrantzaleek basurde bat topatu dute mendian perretxiku bila zebiltzala. Ustekabeko topaketa horrek odolez, izerdiz eta lokatzez bustitako abentura gogor eta neketsu batera bultzatuko ditu.




## ▲ Belarra (2002)

**Zuzendaria/Gidoia/Argazkia:** Koldo Almandoz  
**Musika:** Kashbad  
**Aktoreak:** Iker Pernas, Ainara Gurrutxaga, Peru Almandoz  
**Iraupena:** 10 min.

### Sinopsia

Emakume bat dutxatik atera, jantzi eta, bere semea besoetan duela, baserri alboko belardira ateratzen da, saski batean dauden maindireak eguzkitan leho daitezzen zintzilikatzera. Urrutian, gizon bat dabil segaz belar luzea mozteten. Bat-batean, saski batetan eserita zegoen haurra altxatu eta belardian barneratzen da...




## ◀ Dortoka Uhartea (2002)

**Zuzendaria:** Maru Solores  
**Gidoia:** Maru Solores, Ruty Rehmet  
**Argazkia:** Frank Amann  
**Musika:** Xabier Montoia  
**Aktoreak:** Ane Ormazabal, Egoitz Lasa, Gerardo Romero, Javier Gurrutxaga, Maiken Beitia  
**Iraupena:** 15 min.

### Sinopsia

Espaziotik etorritako izaki bat lur gainera erortzen da bat-batean, zehazki dortoka baten itxura duen harri bihurtutako uharte baten inguruetara. Izaki hori Ainhoa da, asma kronikoa duen 9 urteko haurra, uhartean gau batez bizirauteko desafioari aurre egiten diona, uhartea lehen aldiz aurkitu duen estraterrestrea dela imajinatuz.




## ▲ Terminal (2002)

**Zuzendaria/Gidoia:** Aitzol Aramaio  
**Argazkia:** Jesús Haro  
**Musika:** Bingen Mendizabal  
**Aktoreak:** Miguel Ángel Solá, Blanca Oteyza, Ramón Barea, Mariví Bilbao, Loli Astoreka  
**Iraupena:** 12 min.

### Sinopsia

Autobus gidari batek sarritan ikusi ohi zuen neska "yonki" bat hil egin delako susmoa du. Eta damu zaio hari lagundu ez izana. Baina handik gutxira neska bizirik agertzen da...



## ◀ Topeka (2002)

**Zuzendaria/Gidoia:** Asier Altuna  
**Argazkia:** Txema Areizaga  
**Musika:** Javi Pez  
**Aktoreak:** 2 ahari eta 80 lagun  
**Iraupena:** 3,30 min.

### Sinopsia

Herri txiki bateko gizonak bertako plazan zirkulo bat osatzen dute. Zirkuloaren erdian, bi ahari burrukan ar dira...

# kontzertua

oxforden  
 ekainak 25, ostirala, gaueko 11etan



## MAL DE OJO. Euskal rumbaren ordua

Hamar urte daramatza Mal de Ojo taldeak rumbak eta erritmo beroak lantzen; hamar urte zuzeneko emanaldi bizi eta alaiak eskaintzen. Bost disko autoekoitzi ondoren, Donostialdeko taldeari lan berria disketxe baten bidez kaleratzeko ordua iritsi zaio.

1993. urtea zen Adrian Perez donostiarrak poparen eta rockaren bideak utzi eta doinu ijitoekin lanean hastea erabaki zuenean. Ez ziren garai onak horretarako, baina hamar urte igarota, taldeak bere lekua eskuratu du zirkuitu alternatiboan, nahiz eta Adrian bera den hamar urte hauetan taldean tinko iraun duen lagun bakarra. Euskal Herrian erritmo gogorak eta rockeroak nagusi ziren garaian, Mal de Ojok freskotasuna eta bestelako bide bat ekarri zituen musika mundura, eta nolabaiteko ezustea ere bai, ez baitzen oso ohikoa euskal talde bat rumbak abesten entzutea. Orduetik hona bidea egin du Mal de Ojok, eta hasiera batean kantu gehientsuenak gaztelaniaz abesten zituzten, baina denborarekin euskarak ere bere lekua hartu du kantuetan. Gato Perezen edota Pereten ahotsetan entzutera ohi-

tuak gauden doinuak gure hizkuntzan entzuteak sorpresatxo batzuk ere sortarazi izan ditu. "Jendeak eskertu egiten du runba bat euskaraz aditzea. Musika latinoak modan dago baina gaztelaniaz iristen zaigu guri beti, eta hainbatek begi onez ikusten gaitu euskaraz abesteagatik". Bost disko izanagatik ere, zuzenean emandako kontzertu zirragarri eta dibertigarriek esker egin da ezagun Mal de Ojo. Agertoki gaina izan du taldeak bere dohaiak erakusteko plazarik egokiena: "Mal de Ojok zuzeneko giroa eskaini du beste ezerekin gainetik. Ikuslearekin konplizitateaz lotzea eta festarako txoko bat izatea izan baititugu helburu nagusi".

*Mestijaja*, taldearen azken diskoa, ohi bezala, runba, tango, son eta bestelako erritmo berok beteta dator. Hamar urteko lana eta horrek ematen duen eskarmentua antzematen zaio, baina ez da gehiegi aldentzen taldearen nortasun zeinua izan direnagatik. Beren eskaintza ezagutzera ematea da egun euren lehenengo helburua. Ez diote ordea, zuzenean ondo pasatzeari utziko, hori baita, azken batean, Mal de Ojoren oinarria.

Mikel Lizarralde Berria-rako idatzitako testu batean oinarrituta

# w ebgunea

www.baleike.com



Baleike.com laster abian

Berritasun garrantzitsu bat eskainiko du Baleikek uztaitetik aurrera: [www.baleike.com](http://www.baleike.com) <<http://www.baleike.com/>> web gunea.

Web gune berri honek zumaiarrok Interneten izango dugun ataria izateko bokazioz jaioko da. Ez da informazioa eskaintzera mugatuko, guztiok parte hartzeko plaza zabala izango da. Baleikek bere jaiotzaz gerotik izan duen informazioaren grina eta pluraltasuna bateratzen dituen proiektua da hau.

Berritasun nagusia web gunearen dinamikotasun eta elkarreragiletasuna dira: egunero argitaratuko dira bertan Zumaiarekin zerikusia duten berri eta albisteak, eta edozein erabiltzailek horien inguruko bere iritzia eman ahal izango du. Gainera albisteak argitaratuko dituen ez da Baleike bakarrik izango, edozeinek egin ahal izango duelarik. Erregistratutako erabiltzaile guztiak posta elektronikoz jasoko dituzte azken berriak web gunean agertu ahala.

Atal gehiago ere izango ditu web guneak: agenda, hemeroteka digitala, argazki artxiboa, informazio erabilgarria, etab., baina hurrengo zenbakian aurkeztuko dizkizuegu hauek guztiak. Oraingoz hemen dituzue izango duen itxuraren aurrerakin batzuk.



# Baleike jaio zenekoa

Hamar urte betetzen dira Baleikeren abenturari hasiera eman zitzaionetik. Ez gara hasiko berriro ere aldizkariaren sorreraren inguruan gertatutako mila eta bat pasadizoak kontatzen, baina halako urteurren batek atzera begirada bat botatzea ekartzen du. Nolako zen Zumaia orain 10 urte? Zein gaik pizten zuten irakurleen interesa? Zer zegoen puri-purian?

Gezurra badirudi ere, hartzaindegiaren gaiarekin eman genion hasiera Baleikeri. "Zumaian, betidanik izan da hartzaindegi bat sortzeko nahia, baina arrazoi bat edo beste dela medio, ez dakigu ziur zergatik, oraindik ez da asmo hori burutu." Hala zioten Belen Aizpuruak, Amaia Urangak eta Arantxa Urangak aldizkari honen lehen erreportajearen (garai hartan erreportajeak ziren oraindik). 10 urte behar izan ditugu herrian hartzaindegi edukitu ahal izateko.

10 urte hauetako gai polemikoenetakoa bihurtu den Kirol Portua proiektua besterik ez zen 1994an. Garai hartan alkate zen Ricardo Peñak alde egiten zuen ("Momentua ez da txantxetakoa, Zumaiako Herriak asko du jokoan, Portuko Garapen orokorra behar dugu"), Zumaia Bizirik-ek, aldiz, kontra ("Proiektu hau aurrera eramateko tesi bakarrak, gero eta garbiago, ekonomia-errespekulazioa eta interes partikularrak direla uste dugu"). Ahari-jokoaren oinordekoak.

Institutuak X. urtemuga betetzen zuen, euskararen ezagutza mailak gora egin zuen (zumaiarren % 67,8k genekien euskaraz 1991n) eta gero eta jende gehiago egiten zuen kirola, Fran Aizpuruak zioenez. Pello Etxabek kirola egin ez dakigu, baina dantza nola! Bigotea instituziotzat duen tabernari hau izan zen lehen elkarrizketatua Baleiken. Hamarkada bat geroago hor segitzen du, al pie del cañon!



Gazteak ginen garai hartan eta baita nahiko inkomfortistak ere. Natura, antimilitarismoa, sexualitatea jasotzen genituen gure orrietan. Zumaiako Natur Taldea Zumaiako ingurunea zaintzen ziharduen, Gu Ez Goazekoek Ismael Manterola intsumisoaren epaiketari buruz idatzi zuen, Gazte Batzordekoak raftinga egitera joan ziren eta Baleikeko kideak orgasmoa, afrodisiakoak eta zakilaren tamainaren inguruko debate sutsu batean murgilduta agertzen ginen. Gazteak ginen eta...

CROISSANTERIA

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**Marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**SIWA**  
Belardenda

Basadi 9  
943 143404

- Elkadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

**INMOBILIARIA** 943 143361

**BIDAIK** 943 143323

Ortega y gasset, 1

# Piraguietak Espainiako Txapelketak prestatzen dabilta

ITSASO IBARRA

Itxas-Gain taldeko piraguietak neguko denboraldia amaitu, eta hainbat karrera prestatzen dihardute une honetan. Horrela, Espainiako hainbat txapelketatan parte hartuko dute datozen asteetan.

Denboraldia nola daramaten galdetu-takoan, Vicente Royok, Itxas-Gain taldeko lehendakariak dioenez, "nahiko eskas doa." Arrazoi nagusia hauxe omen da: piraguietak azterketa garaian egotea.

Neguan hainbat txapelketatan aritu dira. Horien artean, Espainiako iraupen txapelketa jokatu zuten. Bertan, beteranoak lehen eta hirugarren postuak lortu zituzten. Jubeniletan, Unai Merinok 16. bukatu zuen. Emakumezkoei dagokienez, kadeteak eta jubenilak

lehen hamarren artean geratu ziren. Vicente Royoren hitzetan, "Hauek dira orain arte lortu ditugun lorpen handienak".

Orion, Euskadiko maratoi txapelketan ere lehenengo postuetan ibili ziren herriko piraguietak.

Kirol honetako lasterketa nagusiak Espainiako txapelketak izaten dira. Bertan, Espainiako ibaietako kopa eta Espainiako pistako kopa daude. Bi lasterketa hauek dira ospe eta diru gehien ematen dutenak. Itxas-Gain taldekoak Espainiako ibaietako kopa jokatzeko dabilta. Gaur bitartean, hiru frogatan hartu dute parte. Lehenengo bietan "nahiko fin" aritu direla adierazi du

Vicentek. Maiatzaren 15 eta 16an Sevillan jokaturakoan berriz, "nahiko flojo ibili gara", dio lehendakariak. Lasterketa honetan bi talde bereizten dira. Garrantzitsuena kadete, jubenil eta seniorrek osatutakoa da. Bestalde, infantilen taldea dago. Horiek, bizpahiru frogatik dituzte. Aurreko astean, infantilak Caceresen egindako lasterketan nahiko ondo aritu ziren. Beraiek lortutako puntuei

"Espainiako  
kopako  
aurreneko  
probetan nahiko  
fin ibili gara"



## Eskolarrak taldeka Gipuzkoako txapeldun izan dira

esker, sailkapen orokorrean hamar edo 15 postu aurreratu-ko ditu Itxas-Gainek.

Bestetik, Espainiako abiadura txapelketa prestatzen dabilta. Behin ikasturtea amaituta piraguistak asteko hiru egunetan goiz eta arratsalde entrenatzen hasten dira. Horrela, gogor entrenatzen dutenez, urtero ia piraguista denek dominak lortzen dituzte lasterketa honetan. Aurten, uztailearen 31n eta abuztuaren leian jokatuko dute txapelketa. Horren ondoren, Asturiasen Sella ibaiaren jaitsiera dute.

Piraguista batek izan behar dituen ezaugarriez ere mintzatu gara Vicentekin. Berak dioenez, "Piraguismoko oinarri nagusiak teknika eta konstantzia dira", eta gaineratu du "Zumaiaiko piraguista konstanteena Oier Aizpuruua izan da. Horregatik, iritsi da dagoen mailara". Hori lortzeko, garai honetan asteartetik igandera bitartean entrenamenduak izaten dituzte. Denboraldi hasieran, hau da, urria, azaroa eta abenduan, batez ere alde fisikoa lantzen dute. Fondoa hartzeko hainbat ariketa egiten dituzte gimnasioan. Asteburuetan, uretara irteten dira teknika lantzerako. Urtarrietik aurrera, berriz, uretan egiten dituzte entrenamendu gehienak. Horrez gain, gimnasioan pesak egiten dituzte.

### Eskolarrak

Aurretik aipatutako kategoria horiez gain, Itxas-gain taldea eskola mailako neska-mutilekin ere aritzen da. Aurten kategoria honetan 30 kide dituzte. Adin hauean daukaten helburuaz galdetutakoan, "piraguismoarekiko zaletasuna piztea da", dio Vicentek. Horretarako, beraien entrenamendu gehienak uretan egiten dituzte, arraunean ondo aritzeko hiruzpalau pauso ikas dituzten, teknika oso garrantzitsua baita kirol honetan. Bestetik, helduenak direnekin gimnasioan jolasak egiten aritzen dira. Vicente Royok dioenez, "piraguismoa gustuko izatea lortu nahi dugu".

Kategoria honetan daudenek ere izaten dituzte lasterketak. Horrela, Zumaian jokatuako Gipuzkoako txapelketan hainbat domina lortu zituzten. Gainera, talde mailan lehen postua lortu zuen Itxas-Gainek. Bizkaian, Plentzian jokatuako lasterketan ere lehendabiziko postuetan ibili ziren herriko piraguista gazteenak.

Piraguista gazte hauek dira Itxas-Gain taldeko harrobia. Vicente Royok dioenez, "Gogorik badago eta goian daudenek lan egin eta gazteenei laguntzen badiete, beti egongo da harrobia". Piraguismoak herrian duen arrakastaren inguruan galdetutakoan, honakoa dio lehendakariak: "Piraguismoan hasten direnek, gehienak hona etortzen jarraitzen dute. Ia aste osoa elkarrekin egoten gara eta horrek gure artean harreman berezia sortzen du. Bestetik, Oier Aizpuruaren lorpenek ere eragina dute".



**Kresala**  
edergintza

Amaia Plaza  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAI A MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**ILEAPAINDEGIA**



San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058



## Oier Olinpiar Jokoetan egon daiteke

Oier Aizpuruak 200 metroko distantzian zilarrezko domina lortu zuen Poznan (Polonian) jokaturako Europako Txapelketan. Hala ere, Oier eta bere K-4ko kideak Europako Txapelketara Atenaserako txartela lortzeko asmoarekin joan ziren. Hori, ordea, ezin izan zuten lortu. 1.000 metroko distantzian jokaturako lasterketan ehuneko batzuegatik kanpoan geratu baitziren. Beraien ontziak bigarren sartzera lortu beharra zeukan, Olinpiar Jokoetara joateko. Oierrek dioenez, "hasieratik bigarren joan ginen



## Xabier Osa munduko kopako frogan bikain

Xabier Osa piraguista beterranoak lehen postua lortu du Tremolaten (Frantzia) munduko maratoni kopan jokaturako lehen proban. Xabier Osak K-1ean hartu zuen parte maiatzaren 29an, 20 km-ko distantzian. Orain arte emaitza onak lortu ditu eta horregatik eskuratu zuen munduko proba honetan sartzeko txartela. Xabier Osa eta Manuel Rivasek K-2ko 20km proban ere parte hartu behar zuten, baina, azkenean, palista zumaiairrak ez ziren irten lasterketa honetan.

Hungariaren atzetik distantziak kontrolatzen. Atzekoak espero baino atzerago zetozen. Orduan, lortuta genuela uste nuen. Ezinezkoa zen azken 200 metroan guri aurreratzea, jakinda gure zatirik onenak hasiera eta amaiera direla. Baina, zoritxarrez, katastrofea gertatu zen. Azkeneko metroetan aurreratu gintuzten."

Europako Txapelketan Olinpiar Jokoetarako txartela lortu ez izan arren, oraindik badute aukera txiki bat joateko. Oierrek dioenez, "Guk merituak egin ditugu sartzeko; izan ere, mundialetan domina asko lortu ditugu eta iaz ere atean geratu ginen. Horregatik, federazioak gonbidapen bat lortu nahi du gu Atenasera joateko. Oso zaila da, ez baita inoiz egin. Baina esperantzari eutsi egin behar diogu".

Bien bitartean, Oierri beste ate batzuk zabaldu zaizkio. Selektzioak Maratoian K-2an aritzea proposatu dio. Gainera, espezialitate honetan etxean entrena dezake. Oierrek garbi dauka piraguismoan jarraituko duela.

Poznatik bueltan, Espainiako master txapelketan K-1ean hartu du parte Oierrek. Bertan, bosgarren sartu zen helmugara.

INMOBILIARIA

**Amaia**

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

## Antonio Etxabe



*Gizonezkoen erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

## ZALLA

Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

# Denboraldi gazi-gozoa

MAITANE URBIETA

Zumaiakoko taldeek amaitu dute aurtengo denboraldia, eta, beraz, talde bakoitzaren etorkizuna erabakita dago. Erregionalek, bai neskek, bai mutilek, maila berean jokatzen jarraituko dute; jubenilek ohorezko mailan jokatzekeo igoera lortu dute eta kadeteak, berriz, maila galdu ondoren, datorren denboraldian kadeteetako 1.mailan arituko dira.

Gazi-gozoa izan da aurtengo denboraldia Zumaiako Futbol Taldearentzat. Izan ere, denetarik egon da: igoerak, jaitsierak...

Denboraldiko poza jubenilen eskutik iritsi da. Talde hau izan da denboraldi honetan mailaz igotzea lortu duen talde bakarra. Denboraldi biribila egin dute Zumaiakoko gazteek. Bi multzok osatzen dute jubenilen 1.maila, eta kategoria horretako txapeliduna erabakitzekeo, multzo bakoitzeko lehenengo sailkatuak elkarren aurka jokatu dute. Antiguokoren aurka neurtu behar izan dituzte indarrak etxeko mutilek eta neurketa galdu ondoren, 1. mailako jubeniletako txapelidunorde ditugu.

Kadeteek, aldiz, ezin izan diote ohorezko mailari eutsi. Denboraldi gogorra izan da eurentzat. Jokatutako 30 partidetatik bakarra irabazi dute eta 4 berdindu. Hala ere, azken partidaraino jo eta ke



saiatu dira burua makurtu gabe eta hori eskertzekoa da. Maila, handitxoegi geratu zaie, eta datorren urtean kadeteetako 1.mailan arituko dira eta hor erakutsi beharko dute euren benetako jokoa.

Erregionalekin jarraituz, esan beharra dago neskek ere denboraldi polita egin dutela. Txapelketa bikaina jokatu ondoren, igoera faserako sailkatu ziren. Bukararaino izan dituzte igotzeko itxaropenak, baina azkenean 3.postuarekin batekin konformatu behar izan dute, eta ez da txarra.

Klubeko talde gorenak, berriz, urteroko preferentera igotzea izaten du helburu,

baita aurre ez du lortu. Izan ere, erregionaletako mutilek hasiera kaxkara eman zioten denboraldiari. Partida asko galdu zituzten denboraldi hasieran eta horrek hasierako helburua baztertzea ekarri zuen. Denboraldia aurrera zihoan heinean, ordea, norgehiagokak irabazten hasi eta azkenean, sailkapeneko postu lasaietan amaitu dute.

Hau guztia ikusirik, hasieran esan bezala, gazi-gozoa izan da aurtengo denboraldia Zumaiako Futbol Taldearentzat.

Orain, merezitako oporrak hartu eta indarberritu datorren denboraldiari aurre egiteko!!

**Galdona**



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



Basadi Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAI



Basadi Auzategia, 9-A 2-B



bixente esteibar "izkiña"

## “Euskaldun izatearen kontzientzixa euskera berak eman ziguan”

ABELIN LINAZISORO

...jarraipena

**Abertzaletasuna aitatu dekenez, kontatu ezak nondik sortu zen zuen politizazio maila. Euskal Herria, euskara...**

Beno, hik ondo dakik gure politizazio maila beti hizkuntzatik etorri dala. Euskaldun izatearen kontzientzixa euskera berak eman ziguan. Gogoratzen nauk gure amak esaten zidala Astorkineko txaleta zaintzen zuen gure izeko Garbiñeri ezin izaten ziola bere izenez deitu urrutitik. Kaletik balkoira-edo deitzekotan Purificación!, karraxi egin behar, hi. Bestela multa edo azeite rizino edan behar. Karlistak nahi zutena. Euskeraren kontrako joera hark, gerra galdu gendulako ere bai, egoskortu gintuen Euskal Herriaren alde eta frankisten kontra. Gero, koadriletan-eta, politikaz ezin gendunez hitz egin, deportian segituan bereizten gintuan. Futbolian batzuek Bilbon alde eta besteak Madrilen alde. Baina gehixena nabarmendu zena ziklismoan izan uan. Abertzale danok Loroñon alde eta karlistak Bahamontesen alde. Abertzale eta karlisten arteko burrukak ere izaten ittuan. Abertzaleok elkarren berri baginien. Joxe Antonio Agirre hil zenian bezala. Haren aldeko meza Getaxan eman zien. Zumaxan ez, e? Getaxan. Getaira, koadrilakoak eta koadrilakoak ez zirenak oinez, mendiz eta kamiñoz jun gintuan.

**Bai. Horrekin oso ondo akordatzen nauk. Nik orduan 17 urte izango nizkian eta gu mendiz joan gin-**

**ttuan. Guretzat orduan Getaiko parrokoa heroe bat izan uan. Beno, baina abertzaletasunaz jarraituz, gogoratzen nauk "Aitorren hizkuntza zaharra" garai hartan, berrogeita hamargarren hamarkadan, zuek bakarrik kantatzen zenutela Zumai guztixan. Eta bertso danak gainera, 12 edo 14 eta "Gora eta gora beti Euskadi ta euskara" amaituz, eta bizi-bizi zortziko eran, ez gero Bergarako taldeak kantatzen zuen moduan lau bertso bakarrik eta balts eran. Non ikasi zenuten euskara eta Euskal Herriaren aldeko aldarrikapen sutsu hura?**

Beno, guk denetik kantatzen ginien. Tabernetan, geure artean eta itxian ikasitakoak. Baina hortik aparte, banian nik liburu txiki pottolo bat dana euskal kanitez beteta. Ez zekiat nork eta nola, baina Donostitik ekarritakoa uan. Handikantxe

ikasi ginien koadrila osoak. Akordatzen nauk behin San Telmo batzuetan, kanta hori tabernan kantatu eta irten diagu kalera. Eguerdiko ordu bata-edo izango uan. Hik badakik prozesixuak-eta izaten zianean nola jartzen ziren balkoietan zapi zuriak edo izarak. Karlistak ez, jakina. Hauek bandera españolak. Honela ba, irten diagu tabernatik eta zer ikusiko hantxe aldamenean aurreneko pixuan eta zera, kriston bandera española miradorian alde batetik bestera. Ba al dakik zer egin gendun? Kale erdixan banderari begira belauniko jarri eta "Hatoz pekataria, hatoz eleizara" kantatu. Etxe barrukoak ez zekiat, baina kalekoak nahiko parre egin zien.

**Zuen mutil gaztetako San Telmoak nolakoak izaten ziren?**

San Telmo egunean orduan ia tailer danak, Karmelo Unanuek-eta, ireki egiten



ittuan. Garai bat izan uan San Telmoak galtzeko zorixan egon zianak. Arrantzale familixak bai, haiek beti ospatzen zien, baina gainontzian, herriko jende askok eta baseritarrek ez. Gogoratzen nauk ni mutil koxkorra nintzala herriko marinela danak nola juten ziran aiuntamentu aurrera aureskua eitera. Honetan numero uno Mikel Urkidi uan. Lekeitiarra. Joakinen-eta aitta. Guk beti jai egiten ginien, prozesixuan San Telmo goraino jun eta behe-rauntzian San Telmo kaleko etxeoandriak hamaiketakua ematen zien. Bezperan-eta esaten zigutean: "Taz bezala bihar ere etorri etxera, e?", eta guk: "Bai, bai". Eta behin ere jun ez haixena, hi. Gero, kofraiko plazuelan urtero-urtero Saliño dantza egiten uan. Zahagixa beti bi kojok eramaten zien eta dantzariak makilaz zahagixa jotzen zuten bakoitzean haixek lurrera erortzeko itxura egiten zien. Nahiko parre egiten zian jendiak haiei begira. Gero, txikiteo latza. Orduan txakolina edaten ginien. Edan beharko. Eguerdiko txikiteoan ardo beltza edaten zuenak mozkor fama hartzen zian-eta. Arratsaldean eta gauean musika izaten uan kofraiko plazan, baina orain ez bezala, orduan mundu guztixak egiten zian dantza. Ezkonduak asko, eta dantza urtean behin bakarrik egiten zuenak ere San Telmo egunian egiten zian. Herri osoak. Plazuelan, kofrai azpizan eta moilan ere bai.

**Garai hartan ordea, San Pedroak izango ittuana festa haundixenak, ezta?**

Jakina. Hiru egun jarraian jai, hi. Sabado ingles eta horrelako ezer ez zeon garai-xan, hiru egun segido asko huan. Baina guretzat dana taberna huan, eta gero, gabeko hamarretan-edo, bi-hiru pieza dantzan egin eta balekua.



*“Banian nik liburu txiki  
pottolo bat dana euskal  
kantez beteta.  
Handikantxe ikasi  
ginien koadrilla osoak.”*

**Bai, baina, taberna eta musikaz gain zer festa klase antolatzen ittuana?**

Danetik. Fuola izaten huan. Plaiueren finala. Tiro plato paol bidean, futboleko kanpua deitzen genion tokixan. Amaiako plazan asto karrerak, zaku karrerak, neskak bakarrik ere bai zeinek saltaka gehixoa egin. Zinta karrerak ere bai. Bizikleta

martxan dihoala, makil txiki batekin zintzilik zegoen zinta aroan katiatu eta dena kanpora atera behar izaten uan. Orduan beste ezer ez zegoan eta mundu guztixak kalera irteten zian hoixek ikustera. Guri gehixen gustatzen zikuna uretako festa uan. Estropak. Bateletan sekula ez ginien irabazi. Kontraxuak trinauko mutilak izaten ittuana: Xeapin Aldalur, Akebarro, Gorostola, Iñaki Yeregi... eta haiei ez zegoan irabazterik. Haixek batel onena, Begoña, eta talde indartsuena zien. Gure batela, berriz, Danona, ez uan txarra, baina... Uretako festa haue-tan kukainak ere izaten ittuana. Hemen ere kojuak nagusi, ez zekiat zeatik, oina okerra zutelako-edo, baina makilaren muturrera kojuak bakarrik ailegatzen ittuana. Tiñen estropak ere izaten ittuana. Oso zaila. Arrauna bakarrarekin tiñak aurrera egin beharren bueltaka hastea oso erraza izaten uan-eta. Hontan onena Migelito Gorostola uan. Aide eerra eamaten zian hark! Munduko onena! Ahateak ere izaten ittuana. Ahatea uretara bota eta bateletan zain geundenok uretara salto ein eta hura harrapatzera. Nik uste diat uretako festa izaten zala gogokoena zumaiairrontzat.

**Mutil koxkor garaian gosea ere eza-gutuko zenuten, ezta?**

Bai, etengabekoa. Gure osaba Martinek gerratik karta batean jartzen zuen moduan, "Tengo etengabia". Orduan ba al zegoan ezer, ba? Haitzera, maulixo, andarika, lapa, olarru eta txoazkin bila.

**OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea  
tel: 943 86 16 66  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

**Nikol**  **Enea**

**TABERNA**

Amaiako plaza

gure zumai zarra

Lapa gordina asko jaten ginien. Oaindikan ere nei asko gustatzen zizkaki. Gure amak-eta jatekoakin milagroak egiten zizkien. Gure etxean amak kroketen moduko patata haundi batzuk prejitzen zizkian. Barruan haragi puxka txikiak sartu eta izugarri kolore ederrarekin ateratzen zizkian mahaira. Izugarri goxoak izaten itxuan. Arrazionamentua ere izan uan. Bakoitzari tokatzen zitzaiona hartu behar. Honenbeste patata, honenbeste olixo, honenbeste azukre... Eskolastika Prantzik abixatzen zian noiz zan arrazionamentu eguna, periodikua saltzearekin batera: "Hoy hay racionamiento!", diarra egiten zian. Gogoratzen nauk behin patata zaharra eta puskatua eman zutela baratzen landatzeko. Mundu guztixak hartu zian, hi. Derrepente danak baserritarak. "Hik non daukak terrenoa, ba?", haixek, eta guk: "Talaimeindixan". Gure aittak ere hartu zian. Etxean jateko, jakina. Kofraikoak ere zerbait ematen zien bertako sozixoentzat. Arrazionamento garaian kriston ilarak sortzen itxuan. Telak erosteko ere, Pakaneko dendan kriston ilara. Baita emakumeen arteko errietak ere! Gogoratzen nauk ilaran beti aurrena izaten zan baten etxean gertatua. Andria gabeko zinera jun dek, gizona ondoezik zegola-eta etxean ohian lagata. Gizona emazterik gabe bere burua ikustean pen-



*"Arrazionamentuarekin  
gure amak-eta  
jatekoakin milagroak  
egiten zizkien."*

tsatuko zian "Oain dek nerean!", jaiki ixilixilik, sukaldera jun, arrautza prejitu, mahaian eseri eta jaten hasi orduko, kriskras atea, eta kolpetik andrea sukaldian agertu zikuana! Herri osoan famatua izan uan gertaera hura. Alondegixan ere nahiko gauza egoten uan, baina han dendetako eta tabernetako gauzak egoten itxuan. Inpuestoa zeukatenak.

**Dena den, umorea ez zenuten inoiz galduko, ezta?**

Ez. Eta ezta komeni ere. Gu beti umo-

reko eta kanturako. Gogoratzen nauk lehenbiziko gaupasa nola egin gendun. Soldautza egin ondoren. 20 urte-edo izango nixkian. Kontuak dek parranda egin gendula taberna danak itxi arte. Orduan jun gaittuk soziedadera eta bautzi zopa egin ginien. Hasi jaten eta goxo-goxua ziguan. "Hi, botaiok gatza gehixo honei", guk koxineruari. Hark danba pila bat

bota, egurrezko kutxariak ondo eragin eta... orduan eta goxoago! Gatzen partez azukria botatzen ari uan! Dan dana jan ginien. Goxoago zegoan! Postria ematen zian. Eguna argitu eta gero, kalera irten eta Astoneko taberna parian zer ikusiko eta asto bat karro eta guzti; Kanteakua uan, eta karrua kereixez bete! Hau dek mauka! Barinaga asto gidaritzat jarri eta Erribera kaletik barrera eraman ginien. Orduantxe azaldu uan gure aitta, itxura danez kezkatuta etxean ez nintzalako azaltzen. Amari esan omen ziguan: "Beno, mutila ondo dago behintzate...". Ailegattu gaittuk Txorteneneko aldapa barrera eta goraka ez nekatzeko jarri gaittuk ia danok karruan, eserita, tente... Asto gizajua kargakin aidora juten uan. Astua hegan, hi! Eskerrak nagusia azaldu zan. Ba al dakik zer esan zigun?: "Zuek ez duzue kulparik, kulpa zuei astoa eman dizuenak dik". Gainetik gu onak, hi!

*leapaindegia*

**I Z E T A**

Urumea, 6 Tel. 943 862083

**LEIZE**

taberna

Juan Belmonte, 6



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

# Sanpedrotan... zer egin behar duzu?

## Ostirala, 25

20.00etan Odieta pelotalekuan, San Pedrotako XI. Pala Txapelketaren azken partiduak  
 23.00etan Alondegian baleike aldizkariaren urteurren festa "Mal de Ojo" taldearekin.

## Larunbata, 26

19.00etan Aita Mari zineman, San Pedro Txiki eta Txikiak eta Trentoko Cles herriko haur eta gaztelxoan abesbatzen kontzertua  
 22.00etan Odieta pelotalekuan zesta partiduak: XVI. San Pedro Sariaren final erdiak.  
 23.00etan Mari kaleko plazatzon, Perkusio Afrikar ikastaroaren amaiera kontzertua

## igandea, 27

9.00etatik 23.00etara: Uxategian, Scalextric froga, 12 orduko iraupen froga.  
 9.30etik 12.30era: Anade elkarteak antolatuta, Plater Tiroketa froga, Narrondoko erriberetan.  
 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara Eusebio Gurrutxaga plazan, ARTISAU AZOKA. Eguna alaituz, Agurtzane eta Ion trikitalarien saioa.  
 22.30ean Aita Mari aretoan, AUKERAN dantza taldearen ikuskizuna "SUTARGI"

## Astelehena, 28

11.00etan TXU-TXU trenaren ibilaldiak.  
 12.00etan Udaletxean, TXUPINAZOA jaiet hasiera emanaz  
 Jarraian, TOLOSAKO DULTZAINEROAK arituko dira kaleetan zehar  
 12.30ean plazan Jota emanaldia LA RIBERA CANTA taldearekin.  
 16.00etan TXU-TXU Trenaren saio berriak

17.00etan Udaletxe aurretik Buruhaundi eta Erraldoien kalejira Tolosako Dultzaineroek lagunduta.  
 18.30ean Erribera kalea eta plazan, Gorringo taldearen haur antzerkia "Munduko arraultzik haundiena"  
 19.00etan Udaletxean, Zumaia Sariak 2004-saribanaketa.  
 Eta kalez kale, SUGARRI txarangaren kalejirak.  
 23.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan LAIOTZ taldearekin dantzaldia  
 Ordu berean San Pedrotako Tanborradaren hasiera Gauerdian udaletxean, herriko ikurrinaren igoera.  
 01.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan LAIOTZ taldearen saio berriak eta SUGARRI txarangaren doinuak kaleetan zehar.

## Asteartea, 29 San Pedro Eguna

9.00etan Tolosako Dultzaineroekin goiz soinua.  
 11.00etan plazan, GORRITI ETA BERE ANIMALIAK, haur festa.  
 11.15ean Alkatesoia Udal Musika Bandarekin, eta Udalbatza eta herritarrek prozesioan Parrokira joango dira  
 11.30ean parrokian, Meza Nagusia Parrokiko San



Pedro Abesbatzak abestua  
 12.00etan Tolosako Dultzaineroen kalejirak  
 13.00etan Udal Musika Bandaren kontzertua Eusebio Gurrutxaga plazan  
 17.00etan frontoi txikian, KUKO, TRUKO ETA BOLENWAIDER Pailazozen ekitaldia.  
 18.00 etan Tolosako Dultzaineroen kalejira  
 18.30ean Eusebio Gurrutxaga plazan, HERRI KIROL IKUSKIZUNA  
 19.00etan SUGARRI txarangaren ekitaldia  
 23.00etan Pirotecnia Zaragozana etxearen eskutik, UJ ARTIFIZIALAK  
 Bukaeran Tolosako Dultzaineroekin kalejira plazaraino Bertan Zumaia Udal Musika Bandaren dantzaldia Gauerditik aurrera SUGARRI Txarangaren saioak Erribera kalean

## Asteazkena, 30 San Pedro bigarrena

9.00etan Goizsoinua Tolosako Dultzaineroekin  
 11.00etan Haur jolasak : BURUHAUSGARRIAK - birziklatutako materialarekin egindako 30 joku.  
 16.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan Haur Festa: XURDIN IPOTXEN MUNDUA jolasa, Haurrentzako Herri Kirolak, TopK euskaraoketa eta gaztelu puzgarriak.  
 18.30etan DUNBOTS txarangarekin kalejira berriak  
 22.30etan Disko Top diskofesta eta dantzaldia

## UZTAILA

### Osteguna, 1

Goiz eta arratsalde parkea Eusebio Gurrutxaga plazan eta Odieta pelotalekuan

### Ostirala, 2

22.30ean Odieta pelotalekuan zesta partiduak: XVI. San Pedro Sariaren azkenak

**ekin**  
Estalazioak, S.L.

Instalazio elektrikoak  
 Telekomunikazioak  
 Informatika  
 Internet

DIGITAL+ CANAL+

OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6  
 Tel./Faxa: 943-143057  
 Z U M A I A

Arantza Aramendi

**EGUZKI**  
 G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
 943 86 22 65 - 609 46 56 37

**Ford**

**Azkue Autoak**

Trenbide Pasealekua,4  
 Pab. 2 Tf. 943 861 433

**AITA MARI**  
**KAFETEGIA**

Julio Beabide, 15 Tel. 943 861395 ZUMAIA

**Arkupe**

Okindegia  
 eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

## eguna argitu baino lehen

# Z

abaldu dute goizeko lehen txiringittoa, aldi berean kruasandegia eta pizzeria dena, eguna argitu baino lehen. Askok beste garagardo bat eskatu dute; nik kafesnea txokolatezko napolitanarekin.

Hau da jendetza inguratu dena! Jende olatu handiak ibili dira gaurko parrandaren itsasoan eta ez da harritzekoa, gurea eta beste bi ezkontza izan dira-eta gaur. Neska formala izan naiz azkenaldian eta aspaldi ez nuela horrelako juergarik egin! Oraindik ez da amaitu, gainera. Laster etxera joango naiz, halere, gure taldean geratu direnak gero eta nazkagarriagoak daude-eta. Aitorrek pizza eskatuko ote dugun galdetu du; Inñigok esan dio igual nik nahiago izango dudala "pitxa" bat! Lehenengoari buruan daukala "pitzadura" esan diot eta bigarrenari hankarteko "pitxa dura" hori baretzeko. Gorputza nekatuta daukat, baina burua argi.

Atzean taldetxo bat dago, hirukote xeble eta dibertigarri bat, ustez "mutilzahar gazteak". Hori da zerbitzariari adarra jotzea! Gurasoek Sofia izenarekin bataiatu zuten zerbitzari gaixoa eta printzipitoaren ezkontzaren kontuarekin egurra ematen ari dira hiru mosketeroak: non dagoen Leti,

Juankarri adarrak jarri nahi ote dizkion... Horiek dira ateraldiak! Ez lirateke bertsolari txarrak izango! Bat, gainera, garai batean eskolarteko txapelketan bat-batean aritutakoa da, erdi poeta, iaz AEK-ko piropo lehiaketa irabazi zuena. Nola zen...

Zure xarma, a ze arma, sarean sar nazazu armiarma!

Ole mi arma!! Hori grazia! Zerbitzariak seguru esango lukeela euli nazkanteak direla eta pozik sareratu eta akabatuko lituzkeela, baina patilladun hori... ez dago hain gaizki. Ni baino urtebete zaharragoa da, ikastolan ibilitakoa. Urte batzuk egin zituen Azpeitiko panpina harekin!

Bertsotan hasi dira gero, puntuka. Ederki ari dira, aluak, berriz ere Sofia zirikatzen. Lagunei batere kasurik egin gabe, atzeko inprobisatzaileei adi egon naiz, barre txikiarekin. Neska kontuak atera dituzte hurrena, eta bizkarra emanda nengoena haiei begira jarri naiz. Bertsoa bukatu dutenean nik neuk eman diet hasiera:

—Mingaina bai luzea  
beste zerbait motza...



**ALBAITARITZA  
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

**-ALBAITARIAK-**

asteguntzan: 16:30-20:00  
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

Karmengo Arma, 14  
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



**ALGORRI TABERNA**  
ERRIBERA KALEA 2 - TUMAIA 943 862543

Moztuta geratu dira, erabat. Ni barrez hasi naizenean patilladunak arrankatu eta bukatu du bertsoa, hankamotz puntu batean, luze hurrengoan, baina intentzio osoz:

—...ematen ez dun arren  
badegu lotsa  
taupadakin danbor joka  
jarri zait bihotza  
ta horren erruduna  
zu zera panpoxa

Ez dago gaizki!! Bixigu begiak ditu pixka bat, baina gure Aitor, Iñigo eta abar baino gorputzaldi hobearekin antzeman dut "bertsolaria". Behatzarekin gerturatzeko eskatu diot eta otzan-otzan inguratu zait. Publikorik gabe ofizioka egin nahi ote duen xuxurlatu diot belarrira, bat-batean. Doinu gozo bat hartuko dugula, habanera-edo, etenik gabekoa. Saio bat egin genezakeela, edo bi. Poto egingo balu ere barkatuko niokeela. Errima eta erritmoa zainduko ditugula bion artean...

Gustatu zaio plana, mutilari! Esan dit nahiko hurre dagoela bere aretoa. Oholtza handia daukala, bi metro zabalekoa. Bakarka abesteaz aspertuta dabilela aspaldian. Eta txapela janzteko gogoz dagoela...



Sarean elkar harrapatu eta ustez disimuluan gozamenaren portura abiatu gara, nabarmen, eguna argitu baino lehen.

XABIER AZKUE

"Ez kapar, ez bakar" ipuinetik moldatutako zatia

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Ekainak 24, osteguna, 22:15ean

## 21 gramos

Zuzendaria: Alejandro González Iñárritu

Aktoreak: Sean Penn, Benicio del Toro, Naomi Watts



Alejandro González Iñárritu zuzendari mexikarra ezaguna egin zen *Amores perros* filmarekin eta *21 gramos* hau da bere azken pelikula. *21 gramos* filman, Iñárrituk hiru pertsonaiaren bizitza gorabeheratsua aztertuko du, hilabete batzuetan zer gertatzen zaien. Istripu baten ondorioz, hiruren bizitzak eta patuak ezustean gurutzatu egingo dira, eta ondo baino hobeto ezagutuko dituzte amodioaren gailurra, mendekua-aren amildegia eta librantzarako promesa.

*Amores perros*-en bezala, denborak bihurritu egingo du narrazio-aren egitura, eta ikusleak zuzen-zuzenean parte hartuko du lehen eszenatik. Robert Salerno ekoizlearen hitzetan: "Ikusi ahala dakite ikusleek zer gertatzen den eta guztia elkarrekin nola ahokatzeko den". Istoria erraz dabil iraganaren eta orainaren artean joan etorrian, baina betiere etorkizuneko librantza promesara dago bideratuta.

Paul Rivers (Sean Penn) unibertsitateko irakasleak eta Mary (Charlotte Gainsbourg) emazteak elkarren arteko harremana kolokan ikusten dute, bizitzaren eta heriotzaren arteko mugan. Senarra gaixorik dago, hiltzeko, bihotz-transplantea noiz egingo zain; emazteak, berriz, senarrarekin haurdun geratu nahi du, intseminazio artifizialaren bidez. Iragan nahasia ahaztuta, Christina Peck (Naomi Watts) pozik bizi da, famili bizitza itxaropentsuan: alboan ditu Claudia (Clea Du Vall) arreba, Michael (Danny Huston) senarra eta bi alabatxoak. Gizarte maila apalagokoak dira, berriz, Jack Jordan (Benicio del Toro), preso ohia eta orain fededun sutua, eta emazte Marianne (Melissa Leo), eta bi seme aurrera ateratzeko borrokatzen dira.

Zoritzarreko istripu baten ondorioz, hiru bikoteen bizitzek bat egingo dute eta Paul-ek hilkorra dela onartu behar du, Jack-ek zenbaterainoko fedea duen ikusiko du eta Cristina bere oraina –eta agian etorkizuna– konpondu behar du. Horietako bakoitzaren barne oreka oso garestia izan daiteke gainerakoentzat. Baina inork ez du galduko bizitzeko gogoia eta besteengan laguntza bilatzeko sena.

### SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

*gidatzeko baimen guztiak*



GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela



Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64

## ERAKUSKETAK

Alondegian.

- Ekainaren 4-20 OLATZ GOIBURU
- Uztailak 3 - 15  
AMNISTIA INTERNACIONAL  
"EMAKUME ESKUBIDEAK."

## DEIALDIAK

- ZUMAIAKO ARGAZKI  
LEHIAKETA: txuri-beltzean: gaia "Gure leiho eta balkoiak". Lanak aurkezteko epea: ekainaren 21a bitartean.
- ZUMAIIA LORETAN-Balkoi eta leihoetako lehiaketa. Izenematea kultur etxean ekainaren 21a baino lehen (943-861056)

## AGENDA

- Larunbata 12: 19.00etan Alondegia aretoan Argazki

Rallyeko saribanaketa.

- Asteazkena, 16: iluntzean Maria eta Jose aretoan, Txori Txiki musika eskolako ikasleen kurso amaiera kontzertua.
- Osteguna 17: Baleike aldzikariaren 10. urteurrena: Aita Mari aretoan, pelikula laburren emanaldia.
- Larunbata 19: 17.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Haur eta Gazteentzat Zirko Tailerrak Sebastopoleko Titiriteroekin.
- 23.00etan Itzurun hondartza gainean, Musika Eskolako ikasleen rock kontzertua-Gonbidatu gisa herriko zenbait taldek joko dute.
- Osteguna, 24: ZUMAIIA LORETAN-balkoi eta leihoetako lehiaketa.



## PERKUSIO IKASTAROAREN AMAIERA KONTZERTUA

Ekainaren 26an perkusio afrikar ikastaroaren amaiera kontzertua egingo da Mari kalean. Hainbat hilabetetan danborrak jotzen egon ondoren, ikasitakoa jende aurrera eramateko aukera izango dute.

- 22.15etan zine forum saioa "21 gramos"
- Ostirala, 25: Baleike aldzikariaren 10. urteurrena: Alondegian, "Mal de Ojo" taldearen rumba doinuak
- Larunbata, 26: San Pedro Txiki abesbatza eta Italiako CLES herriko Abesbatza Gaztearen arteko topaketak: harrera eta kontzertua.
- 23.00etan Mari kaleko plazatxoan, Perkusio Afrikar ikastaroaren

- amaiera kontzertua.
- Igandea, 27: egun osoan zehar, ARTISAU AZOKA
- 22.30etan, Aita Mari aretoan, Aukeran dantza taldearen "Sutargi" ikuskizuna.
- Astelehena, 28: iluntzean udaltxean, "Zumaia Sariak 2004" banaketa.
- 28tik aurrera, SAN PEDRO jaiak
- Uztailaren 9tik 11ra: Narrondo Auzoko jaiak.

## LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA:

TEL: 943-862730  
liburutegia@zumaia.net

- Udako ordutegia: uztailaren 1etik aurrera.
- Astelehenetik ostiralera, 8.30etatik 14.30etara

# Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

## GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

# ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23  
Tel. mugikorra: 608 143409

B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14




## dekorazioa

# ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261



## TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAVITZ  
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirari zelaian mantenimendua

Txostenak ...

aholkularitza teknikoak.

Balazioak

## LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa "luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazakoe z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309



# BALEIKERen LEHIAKETA!!!

Elhuyar edizioak-ek argitaratu du Gipuzkoa zure esku izeneko mahai jokoa. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza. Mahai-joko honek (CD Rom batekin ere osatzen dena) bi ardatz nagusi ditu:

- ✍ Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileren aurka . Gipuzkoa zeharkatzen duen abentura grafikoa da.
- ✍ Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa , mahai jokoa. Bakarrik ordenagailuan, nahiz familiarekin edo lagunekin jolasteaz gain, joko honek Gipuzkoa osoa ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Ekainean beste bina joko banatuko ditugu. Bat bazkideen artean zozketatuta eta bestea jarraian datorren galdera erantzuten dutenen artean.

Erantzunak:  
BALEIKEReko buzoian edo aldizkaria@baleike.com helbidera bidali

Maiatzeko irabazleak Ainhoa Etxabe eta Peio Romatet izan dira. Zorionak!!



Ekaineko galdera: **Inguruko zein herritan ospatzen dituzte Sanpedroak**

**TOMIAS TABERNA**  
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

**LIBRERIA AIZPURUA RUDENDA**

Alta-Mari auzotegia, 17  
Tel. 943 861569

**Xanti ALTZARIAK S.L.**

Mota guztietako altzariak  
Xanti Osa

Amia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385

**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569

**ARGIA ARROPADENDA**

Itzurun, 1 Tel. 943 143224

**METRO taberna**

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

**Hortz klinika**  
Mozès Hiriart eta SOULIER  
Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- \* Endodontzia
- \* Implantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Implantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**  
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

Implantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

*ile-apaindegia*

**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21

# Ardantzabide

altzariak - aroztegia



tarimak, atekak,  
leihoak, pertsianak,  
horma armairuak,  
aluminiozko armairuak...

**%20 BEHERAPENAK %15  
ERAKUSKETA ALDATZEAGATIK**

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioa  
Telfaxa: 943 862 532  
Tailerra: Santixo auzoa 40



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA

**IBARGUREN**

**agustin**

- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak